

FRANTZISKOTARRAK CANTERBURY-n

Canterbury munduan ezaguna da. Ingalaterrako Hego-Sartaldean dago. Nork ez du ezagutzen hemengo Katedral ederra? Gaur ere Katedrala herriaren erdian dago, dena babesten duelarik. Handia, ederra, hor dago Katedrala, Elizaren garai batetako indarraren lekuko.

Badago Canterbury-n beste etxetxo bat ere, jakin gabe ikusi ere egiten ez dena. Britaina Handian zutik dagoen frantziskotarren lehen etxea, hain zuzen. Politia oso Errekatxoa azpitik pasatzen zaio. Sukalde bertatik harrapatzen omen zituzten arrainak fraideek, eta hartu-ala surtara eramaten.

Etxetxo hauxe gorai-patzen da aurten Canterbury-n. Izan ere, 750 urte dira frantziskotarrak Ingalaterrara etorri zirela. Ordenaren fondatzailea bizi zelarik.

Frantzisko santuak berak eskatu zion Pariseko

komentuko guardian zen Pisa-ko Agnellus-i beste fraide batzuekin Ingalaterra "konkistatzera" etortzeko. Hala egin zuen honenek. Beste zortzi fraide berarekin hartu eta han datoz Dover-era. Bazen denetatik horien artean, zahar eta gazte, hiru inglesak ziren.


Irailaren 10ean, 1224-ean, iristen dira Dover-era, Ingalaterrako portura. Jauntxo baten etxean eskatzen dute ostatu, Dover-etik kanpoaldera. Haien jantzi eta eite desitxuratuak ikustean, gela itxi baten sartzen ditu jauntxoak. Eta herriko poliziarri parte ematen dio. Espia edo lapurtzat salatuak ziren. Halako baten, guti barru, liberatzen dituzte.

Ingalaterra barne aldera jotzen dute berehalaxe fraideok, erregebideari jarraituz (gaur autobide nazionala da). Canterbury ez dago urrun. Hemen Katedraleko beneditarren Monasteriora doaz. Onartuak dira beneditarren ar-

tean legezko eta ezagun denez. Baina ez dute nahi inoren pentsura bizi.

Bi egunen buruan taldea banatu egingo da. Lau Londresera doaz. Beste bostak Apaiz Behartsuen Etxera doaz. 1220an eraikia izan zen hau. Gutu barru berriz ere aldatu egingo dira. Eta azkenik, Gloucester-eko Alejandrok, Apaiz-Etxeko Kustodioak emandako etxera pasatzen dira. Hor dago gaurko komentu zahar hori. Baina Frantzisko santuaren gogocari jarraituz, Herriko Agintaritzari uzten diote jabetasuna. Erregelak dionez, fraideek ez dute deus bererik eduki behar, ez etxerik, ez lekurik, ez beste ezer.

Endrike VIIIak "Reformation" sonatuarekin komentuak hustutzera behartu arte, hementxe bizi ziren Ingalaterrako lehen frantziskotarrak. Gaur etxearen zati bat bakarrik gelditzen da zutik, baina denboraren poderioan erortzen joan da. inor bizi



Canterbury-ko frantziskanoen lehenbiziko Komentua (1274), gaur dagoen bezela.

ez zelako baitipait. Gaur ere ez da inor bizi.

Frantziskotarrak, gaur, beste etxadi batetan bizi dira Canterbury-n. Canterbury eta frantziskotarrak lagun zaharrak dira. Baina aspaldi hontan elgar ikusi gabe bizi izan direnak. Mendeak igaro dira hola. Aurtengo ikasurte edo kurtsotako iritsi dira atzera. Kent-eko Unibersitate inguruan eraiki dituzte etxeak. Denetara, Ikas-Zentroa eta lau etxe inguruan. Hiru adarretatik bik —komentualek eta frantziskotarrek, kaputxi-noek ez— elgarrekin egiten dituzte estudioak, Filosofia eta Teologia. Unibersitatearen parie

bat bezala da. Teologia-ko titulua ematen duena. Honekin, Inglaterako frantziskotarren intelektual tradizio sendo batekin lotura egin nahi izan dute. Frantziskotarrak ziren, eta inglesak, Roger Bacon bat, Duns Scotus bat, Ockam-eko Gillermo bat.

Lehen etorrera 1224-ean, bigarrena 1974 (tartean 750 urte), biak batera ospatzen dira aurten Canterbury-n. Horren gogoragari ikus daiteke Canterbury-n "Franciscan Festival 74".

Jaialdi hori Irailaren 6tik 15era luzatzen da. Frantziskotarren artean,

eta Inglaterako Elizaren bizitzan badu inportantziarik Jaialdi horrek. Bi jomuga eman nahi izan diote antolatzaileek Jaialdari. Bat, Frantziskotarren bizitza, historia, eta San Frantziskoren gaurkotasuna argitara ematea. Hortarako badira mintzaldiak, ikuskizunak, bilkurak, etab. Bigarren xedea, gaurko Elizaren biziunea kontutan harturik, batasuna da. Bata-suna, frantziskotarren artean, batasuna erlijiosoan artean, eta batasuna fededunen artean. Esaterako, anglikanoekin batean elizkizun zenbait ospatu-ko da.

Joan Mari Torrealday